

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako Lurralde Ordezkaritza

Ebazpena 2025eko otsailaren 3koa, Arabako Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde ordezkariarena, Laudioko udalerriko 2025eko tokiko jaieguna aldatzen duena

Laudioko 2025eko tokiko jaieguna aldatzeko bere udalak egindako proposamena ikusita, eta kontuan harturik ondorengo

AURREKARIAK

Lehenengoa. Arabako Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde ordezkariaren 2024ko uztailaren 8ko ebazpenaren bidez, 2024ko uztailaren 17an ALHAOn argitaratua, 2025 urterako Arabako tokiko jaieguna ezarri ziren.

Bigarrena. Laudioko Udalak, data zehaztean akats bat antzeman ondoren aurreko 2024-2012 eta 2024-1052 Dekretuetan, udalerriko beste tokiko jaieguna bat dekretatu du. Horrela, 2025eko abuztuaren 16a (San Roke) proposatu du Laudioko Udalerriaren tokiko jaieguna izateko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2025. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duen 49/2024 Dekretuaren 2. artikuluan, eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren 18.2.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arabako Lurralde Ordezkariari dagokio, udalek proposatuta, bere lurralde historikoan lan ondorioetarako baliogabeak, ordainduak eta errekuaratu behar ez direnak izango diren bi tokiko jaieguna ezartzea.

Bigarrena. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak, edo aritmetikoak, ofizioz edo interesdunek eskatuta.

Aipatutako aginduek eta aplikazio orokorreko gainerakoak ikusita, Laudioko Udalaren proposamenez, Arabako Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde ordezkariak hauxe

ERABAKI DU

Lehenengoa. Laudioko udalerriko 2025. urterako tokiko jaieguna ordaindua eta berreskurazina aldatzea, eta abuztuaren 16a, San Roke, izatea (aurreko ebazpenak ezartzen zuen abuztuaren 18a izan beharrean).

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 3a

Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna Arabako Lurralde Ordezkaritzako titularraren orde, haren postua hutsik dagoelako

(Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariaren 2024/12/03ko Ebazpenaren arabera)

CRISTINA VEGAS EGAÑA